

**OÑATIKO UDALA ETA JOSE DE AZPIAZU
MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, AMAIA BIAIN BIDARTE anderea (NAN**4605**X/ Helbide Soziala: Mikel Aozaratza 15, 2 A), Jose de Azpiazu Musika Eskolako lehendakaria, Musika eskolaren izenean.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehena: "Jose de Azpiazu Musika Eskola" irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da, nortasun propioa duen erakundea, 1988ko ekainaren 20an sortua. Bere xedea da musika-kultura herri mailan hedatzea, musika-irakaskuntzarako ikastegi baten gestio eta promozioaren bidez.

Bigarrena: Oñatiko Udalaren helburuetariko bat kultura bultzatzea da, eta horren barruan toki berezia du musika-kulturak.

Bestalde, aipatu beharra dago Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3.6 artikulua musika-irakaskuntza erregimen bereziko irakaskuntza bezala sailkatzen duela, eta, hori horrela izanik, Toki Korporazioen eta Hezkuntza Administrazioen artean musika eta dantza eskoletarako elkarlan-hitzarmenak egitea aurreikusita dago Euskal Eskola Publikoaren Legean (9. Xedapen Gehigarrian).

Hala eta guztiz ere, aipatutako elkarlan-hitzarmen horiek egun arte ez dira gauzatu, eta Udalen laguntzarik ez balitz herri askotako musika-eskolek ateak itxi egin beharko lituzkete.

Hirugarrena: Oñatiko Udala Jose de Azpiazu Musika Eskolaren Instituzio-bazkidea da eta, ondorioz, Zuzendaritza-Batzordeko kide. Oñatiko Udalak, orain artean, dirulaguntza garrantzitsuak eman dizkio.

Laugarrena: Udalak hala erabakita, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolak, 1990az geroztik, Errekalde Herri Eskolan hutsik zeuden lokal batzuk erabili ditu bere irakaskuntza eskaintzeko, baina 1998. urtean Errekalde Herri Eskolako Zuzendaritzak lokalak berreskuratzea eskatu zuen eta Udalak Musika Eskola tokiz aldatu behar izan zuen.

Bosgarrena: Herri Administrazioen Ondarearen Legearen 124 eta ondorengo artikuluen arabera (33/2003 Legea, azaroaren 3koa), Administrazioen ondarea alokatu daiteke, baina lege bereko 2. Azken Xedapenak adierazten du aipatutako legeko artikulua ez direla oinarritzkoak. 124.1 artikulua dio lehiaketa publiko bitartez esleitu behar direla errentamenduak, baina ondoren bete nahi diren beharren arabera aukera ematen du zuzenean alokatzeko.

Bestalde, Toki Erregimeneko Testu Bateratuak 80.2. artikulua xedatutakoaren arabera, ondare-ondasunak beren berariazko legediaz arautzen dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauz.

1986ko ekainaren 13ko Toki Entitateen Ondasun Erregelamenduko 92. artikulua esaten du errentamenduen prestaketa eta esleipena Toki Entitateen kontratazio arauen arabera egin behar dela. Eta bost urte baino gehiagoko kasuetan edo onartutako prezioak Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten %5 gaindituko balute, enkante baten bidez alokatu beharko litzateke.

Aurrekoak kontuan hartuz, Kultura Batzordeak proposatu du Gorritxitxi eraikina zuzenean Musika Eskolari alokatzea beste urte batetarako (2026ko maiatzetik 2027ko maiatzera), kontuan hartuta Musika Eskola irabazi asmorik gabeko elkartea dela eta Oñatin musikarekin erlazionatutako irakaskuntza hedatu eta sustatzea duela helburu.

Hori kontutan hartuz, 2026ko maiatzak 21, osteguna, gauzatuko den Tokiko Gobernuaren erabakiz, Gorritxitxi deituriko eraikina Musika Eskola jarduerarako "Jose de Azpiazu Musika Eskolak" alokatzea onartu du.

Seigarrena: Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua diru laguntzak zuzenean emateko aukera aurre-ikusten du, aurrekontuetan izenez jasota badaude eta kontzesioa arautuko duten hitzarmenen bidez egiten bada.

Indarrean dagoen toki legedian zein diru laguntzen Legean, erakunde pribatuekin elkarlanerako hitzarmenen figura aurre-ikusten da, giza intereseko jarduerak sustatzeko xedearekin.

Hor dela eta, hitzarmen honen helburua, aipatutako lokalaren alokairua eta aurrerantzean Oñatiko Udalak Jose de Azpiazu Musika Eskolari emango dion laguntzak arautzea da, hezkuntza egoera aldatzen ez den bitartean bederen.

KLAUSULAK

Lehenengoa: helburua.

1.- Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola Elkarteari Udalaren jabetzakoa den Gorritxitxi eraikina urte baterako alokatzea (2000ko uztailaren 27ko Udal Plenoaren erabakiz, Hezkuntzari aipatutako eraikinaren hezkuntza desafektazioa eskatu zitzaion eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 2001eko otsailaren 20ko Aginduz onartu zuen).

2.- Hitzarmen honen helburua Oñatiko Udalaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren arteko lankidetzaren eredu modu iraunkorrean ezartzea da, bai diru laguntzei dagokienez, bai bi aldeen arteko harremanei dagokienez, betiere Oñatiko musika-jarduera bultzatu eta bermatzeko xedearekin.

Bigarrena: hitzarmenaren indarraldia (1 urte).

Hitzarmena 2026ko maiatzean hasi eta 2027ko maiatzean amaituko da.

Beti ere, Udalak eskubidea izango du hitzarmeneko baldintzak aldatzeko.

Hirugarrena: finantzazioa.

Oñatiko Udalak Oñatiko Musika Eskolari diru laguntza zuzen eta izenduna bidezko diru laguntza emango dio, hitzarmen honen xede diren musika-jarduerak bultzatu eta finantzatzeko.

2026.urtean Musika Eskolari 178.794 euroko diru laguntza emango zaio, honako kontzeptu hauetarako:

- 29.280 euro, "Txistuaren transmisioa, Euskal Instrumentu Tradizionala" proiektua gauzatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko.
- 149.514 euro, Musika Eskolaren ohiko funtzionamendu-gastuei aurre egiteko.

Ordainketa modua: Musika Eskolaren egoera ekonomiko larria dela eta, **EZ- ohiko izaeraz**, diru-laguntzaren % 100a akordioa onartzen denean ordainduko da.

Ez- ohiko izaera: Hitzarmen hau ez ohiko izaeraz urte batetarako formalizatzen da, Musika Eskolaren egungo egoera ekonomikoak aparteko lanketa prozesua eskatzen duelako. Testuinguru honetan, beharrezkotzat jotzen da Oñatiko Udalaren eta Musika Eskolaren arteko elkarlan estua sustatzea, bai proiektuaren ikuspegi estrategikoari dagokionez, zein kudeaketa ekonomikoaren eta antolakuntzaren inguruari dagokionez. Horrenbestez, eta Musika Eskolaren jarraikortasuna bermatzeko helburuarekin, akordioa onartzean diru laguntza %100ean emango da, entitatearen finantzazioa eta jardueraren garapena bermatzeko; beti ere hitzarmen honetan eta aplikagarri den araudian ezarritako justifikazio-betebeharrak bete beharko direlarik.

Hitzarmen honen xede den diru laguntzarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Diru laguntza 1.0800.481.326.00.01.343.2026 343 partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da.

Urteko aurrekontuak ahalbidetzen badu, aipatu zenbatekoari aurreko ekitaldiko Hego Euskal Herriko Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) emaitza gehituko zaio.

Diru laguntza hau Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28. artikuluan, aukera ematen die Udalei zuzeneko diru laguntzak emateko. Halaber, 22. artikulua ezartzen du (22.2a atala), Udalak eman ditzakeela diru laguntza izendunak. Hau garatzen duen araudiaren, udal-aurrekontuaren betearazpen-oinarrien eta aplikagarri den gainerako arauen arabera arautuko da.

Laugarrena: Elkartearen betebeharrak.

Hitzarmenaren helburua da Oñatin Musika Eskola zerbitzua eskaintzea. Ondorioz, alokairuak zerbitzua mantentzen den bitartean iraungo du, hau da, erabilera hori aldatuko balitz, errentamendu-kontratua bertan behera geldituko litzateke.

Gauza bera gertatuko da Hezkuntza-sistema aldatzen bada. Izan ere, errentamendua lizitaziorik gabe, zuzenean, egiten da egungo Hezkuntza Sistemak Musika edo Dantza Eskoletarako beste aukerarik ez du ematen. Baina hori aldatuko balitz, hau da, Hezkuntza Administrazioak bere gain hartuko balitu Musika eta Dantza Eskolak eta horien gastu guztiak, oraingo kontratua deseginda geratuko litzateke egoera aldatu egingo litzatekeelako eta ondorioz kontratua egoera berrira egokitu beharko litzatekeelako.

Errentamendu-kontratuaren baldintzak:

Laburtuta, hauek dira errentamendu-kontratuaren baldintzak:

- Iraupena: 1 urte.
- Prezioa: Musika Eskolak Udalari hilero 3.950 euro (BEZa barne) ordaindu beharko dizkio.
- Bi alderdiek, Errentamendu-kontratuaren baldintzak jasotzen dituen dokumentua sinatuko dute. Ikus dokumentua.
- Musika Eskolako Zuzendaritza Batzordeak 2026.urtean onartuko duen heziketa-programa betetzea.

Urte amaieran, Musika Eskolak ikasturtearen txostena eta ikasturteko balantze ekonomikoa igorriko dio Udalari, Musika Eskolaren funtzionamendua urtean zehar nolakoa izan den jakin dezan.

Bestalde, Musika Eskolako Zuzendaritza Batzordea, urteko heziketa-programa, matrikula, materiala eta hileko kuotak finkatzen dituen bileraren agiria bidaliko dio Musika Eskolak Udalari.

Hitzarmen honek ez dakar Udalarentzat inolako loturarik bertan lanean ari diren langileekiko; langileak Musika Eskolak kontratatutakoak dira eta ez dute lan-hitzarmenik Oñatiko Udalarekin.

Lan arloan, Gizarte Segurantzako eta Segurtasun eta Higieneari buruzko betebeharrak beteko ditu Elkarteak, eta laneko istripuei buruzko erantzukizuna berea izango da. Edozein unetan exijitu ahal izango zaizkio lan-legislazioak agindutako aseguruak, baita kontratua hautsi ere legeak dioena bete ezean.

Musika Eskolak eskaintzen dituen aktibitate guztiak euskaraz egin beharko ditu.

Musika Eskolaren lan-hizkuntza euskara izango da ahozko harremanetan haur eta gurasoekin.

Idatzizko harremanei dagokienez, haur/guraso euskaldunekin euskara izango da harremanetarako hizkuntza.

Guraso erdaldunekiko harremanak bi hizkuntzatan izango dira, idatziz direnean. Horrela, Eskolak beti bermatuko du batetik euskararen presentzia eta bestetik guraso erdaldunen seme-alaba euskaldunen eskubideak.

Oñatiko Udalak ez du izango Oñatiko Musika Eskolak ematen duen zerbitzuaren gestioaren ondoriozko erantzukizunik.

Diru laguntzari dagokionez:

Musika Eskolak, aurreikusitako xedeak bete izana egiaztatu beharko du, ondorengo dokumentazioaren bidez:

- Abenduaren 1a baino lehen, diru laguntzak ematerakoan jarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduera-txostena, gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuz.
- Abenduaren 1a baino lehen, diru laguntza partida edo lerro ezberdinetan egindako jardueren kostua edo gastuak nahiz sarrerak egiaztatzeko txosten ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- ✓ Gastuen eta inbertsioen zerrenda.

- ✓ Hori egiaztatzen duten faktura edo egiaztagiria eta ordainketa egin deneko agiria.
- ✓ Jarduerak finantzatzeko jasotako beste sarrera edo diru laguntzen zerrenda, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- ✓ Beharra balitz, erabili gabeko soberakinik balego itzulketako ordainketa-gutuna eta horietatik jasotako interesena.

Musika Eskola urteko diru-kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartua balego edo/eta Udalak edo beste Administrazio batek hala eskatuko balio, elkarteak derrigorrez jarri beharko ditu ikuskariaren esku diru laguntzen Lege Orokorren 14.1.f artikulua araberako eska dakioken liburu, erregistro edo agiri guztiak.

Era berean, Udalak egiaztapeneko aktuzioak egin ahal izango ditu, baita diru-kontrolako aktuzioak ere horretarako ahalmena duten kontrol-organismoek, eta eskolak eskatzen zaion beste argibide emango ditu.

Musika Eskolak hitzarmena izenpetu aurretik, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioei dagokienez egunean dagoela egiaztatu behar du.

Musika Eskolak hitzarmena izenpetu aurretik, legeak agintzen dituen eta dagozkion erantzukizun zibileko aseguruen polizak egiaztatuko ditu.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, Musika Eskolak hizkuntza-konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan:

- Elkarteak herriko haur eta gazteekin antolatzen dituen jarduera guztietan euskara erabiliko da, ahoz nahiz idatziz.
- Elkarteak jendaurrean antolatzen dituen txapelketa, musika-ekitaldi, jaialdi eta antzekoetan euskararen erabilera ziurtatuko da.
- Bazkide eta ikasleei helarazten zaizkien gutun, barne-zirkular eta antzekoetan euskara gutxienez erabiliko da.
- Euskararekin batera gaztelera ere erabiltzen den kasuetan euskararen erabilerari emango zaio lehentasuna.

Indarrean dagoen Musika Eskolen erregimen juridikoa aldatuko balitz, Jose de Azpiazu Musika Eskola estatutuak aldatzera derrigortuta geratzen da, ondorengo idazkera izango duen artikulua berria onartuz:

"Musika Eskola deuseztuko balitz, likidazioaren ondoriozko ondare garbia oso-osorik Oñatiko Udalarari itzuliko zaio, haren eskumenen arabera garatu ditzan musika edo kultura helburuetan erabiltzeko."

Bosgarrena: Udalaren betebeharrak.

Oñatiko Udalak, urtero finkatuko du Oñatiko Musika Eskolari emango dion diru laguntza, herrian musikaren irakaskuntza eta kultura sustatzeko egiten duen jarduera bermatzeko.

Era berean, sinatuko den urte bateko hitzarmen honen indarraldian (2026-2027) zehar bi aldeek etorkizuneko lankidetzaren-ereduaren, estrategien eta proiektuaren garapenaren inguruko lanketa eta hausnarketak partekatuko dituzte; urtean zehar jarraipen eta lan bilerak eginez; lanketa horren ondorioz adosturiko irizpideak eta emaitzak aintzakotzat hartuko dira, etorkizuneko aurrekontuak eta diru laguntza-ildoak zehazteko.

Oñatiko Udala Jose de Azpiazu Musika Eskolako Institutuzio-bazkide denez, Udalak egin ditzakeen kapitalezko diru-laguntzek sozietate-ekarpen izaera izango dute, eta diru horrekin

eros ditzakeen musika-tresna edo bestelako kapital-ondasunak Oñatiko Musika Eskolaren ondarean sartuko dira.

Oñatiko Musika Eskolak bere aldetik hitz ematen du diru horrekin erositako ondasunak lkastegiaren ohiko jardunean bakarrik erabiliko dituela; ezin izango dute izan inolako merkataritza-eragiketaren xede, ezta aipatutako erabilpenetik kanpoko beste helbururik eman ere Udalak aurrez onartuta ez bada.

Oñatiko Musika Eskola Oñatiko Udaleko Kultura Batzordearen ardurapean geratuko da. Kultura Batzordean aurkeztu beharko dituzte aurrez aipatutako txostenak eta bertara jo beharko dute jardueran arazoren bat izango balute.

Seigarrena: Datuen egiaztapena eta aurka egiteko eskubidea

Oñatiko Udalak, NISAE-Euskadiko administrazioen Interoperabilitate eta Segurtasun Nodoaren bidez, diru laguntzaren izapidetze administratiborako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, horretarako beste administrazio publiko batzuetatik dagokion informazioa eskuratuz. Zehazki, honako zerbitzu hauek kontsultatuko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketak egunean izateari buruzko kontsulta.

Oñatiko Musika Eskolak kontsulta horiek egiteko aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du, horretarako bere borondatea berariaz adieraziz. Kasu horretan, dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, ezarritako epeetan eta baldintzetan. Eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak prozeduraren izapidetzearekin jarraitzeko ezintasuna ekar dezake.

Zazpigarrena: Lanketa-jarraipen-batzordea.

Bi aldeek adosten dute hitzarmen hau urtebeteko indarraldiarekin sinatzea, indarrean dagoen hitzarmenaren amaiera delako eta, Musika Eskolaren jardueraren jarraipena, eta elkarlanenaren esparrua bermatu behar delako.

Era berean, bi erakundeek konpromisoa hartzen dute, hitzarmenaren indarraldian zehar (2026ko maiatzetik 2027ko maiatzera bitarte) elkarlanaren hausnarketa eta lanketa estrategiko bat garatzeko, etorkizuneko lankidetzaren eredu, Musika Eskolaren egitasmoaren garapena, finantzaketa aukerak eta proiektuaren etorkizuna zehazteko.

Horretarako, urtean zehar, bi aldeetako ordezkariak jarraipen eta lanketa bilerak egingo dituzte, beharrezkotzat jotzen diren proposamen eta estrategiak landu eta adosteko.

Zortzigarrena: Hitzarmena haustea.

Finkatutako amaiera baino lehenago hautsi daiteke kontratu hau, amaitu baino 6 hilabete lehenago Udalarari zuzenduriko idatziaren bidez jakinaraziz.

Elkartek, hitzarmenean jasotako klausularen bat beteko ez balu, Udalak betetzera derrigortu dezake edo hitzarmena hautsi. Hitzarturiko enpresaren aldetik dolu, iruzur edo azpikeriarik izan bada beti erabakiko da kontratua haustea.

Bederatzigarrena: Hitzarmena desegitea.

Musika Eskolak hitzarmenaren baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, Elkartek Udaletik jasotako diru laguntza itzuli beharko lukeelarik.

Hamargarrena: Datuen babesa.

Aurreko atalen arabera Estatuko Administrazio Orokorreko Kontuhartzaitzari egin beharreko datu pertsonalen lagapena, dagokionaren baimenik gabe egingo da.

Eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin izenpetzen da kontratu hau hirukoiztuta, hasieran adierazitako toki eta dataz.

Izaro Elorza Arregi, alkatea.

Amaia Biain Bidarte, lehendakaria.

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan.